# jokulariak75

**EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA**
**BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES VASCOS**
apirila 2011 abril

## zorionak
# Errautsak
## ikuskizunari



# jokulariak75

apirila 2011 abril
**Azal argazkia** Ainhoa Resano


## sumario


3 **kanpotik**
LONDRESEKO ISTORIOAK
Arkaitz Gartziandia

4 2011KO ANTZERKIAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO MEZUA. MARTXOAK 27
Jessica A. Kaahua
¿Y YO QUÉ HAGO AQUÍ?
María Goirizelaia

6 **kurtsoak**
DONOSTIAN, ALBERTOREKIN
Kepa Errasti
ENTRENAMIENTO ACTORAL, EXPECTATIVAS CUBIERTAS
Mikel Martin

7 **oharrak**



EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 DONOSTIA
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com
www.actoresvascos.com

rekin elkartutako sindikatua

**Koordinazioa, edizioa** Belen Cruz
**Maketazio, diseinua** Iosune Fernández
**Inprimategia** Antza LG/DLSS168/2000




## 8ª EDICION DE LOS PREMIOS BUERO DE TEATRO JOVEN

La Fundación Coca-Cola, Juan Manuel Sáinz de Vicuña y los Ministerios de Cultura y Educación han abierto un año más la convocatoria a la nueva edición de los Premios Buero de Teatro Joven, un certamen nacional dirigido a jóvenes entre 14 y 21 años que tiene como objetivo darles la oportunidad de aprender, divertirse, integrarse y estimular su afición por las artes escénicas, a la vez que desarrollan su creatividad artística.
Los grupos interesados en participar en esta nueva edición tienen hasta el 15 de marzo para realizar la pre-inscripción y hasta el 20 de abril de 2010 para efectuar la inscripción de su grupo a través la web: www.fundacioncocacola.com
Los cuatro grupos finalistas tendrán la oportunidad de representar su obra en un emblemático teatro de Madrid, además de disfrutar del IV Campus Coca-Cola de Teatro Joven que se celebrará en Madrid entre el 3 y el 8 de julio de 2011 y en el que asistirán a numerosos talleres teatrales y disfrutarán de actuaciones y visitas de invitados muy especiales.
Organiza: Fundación Coca-Cola

## LEY AUDIOVISUAL

La Ley Audiovisual actual establece, entre otros cambios normativos, la subida en un 1%, la cuota de inversión de las operadoras públicas, como ETB. Es decir, las operadoras públicas tienen la obligación de invertir un 6% de los ingresos devengados en el ejercicio anterior.
Esta inversión puede consistir en la participación directa en la producción o en la adquisición de los derechos de explotación de las mismas en **producciones europeas** de películas cinematográficas, películas y series de televisión, así como documentales y películas de animación.
El 75% de este 6% debe dedicarse a películas cinematográficas de cualquier género y el 25% a financiación de películas, series y miniseries de televisión. Como hemos dicho antes, nos referimos a obligación de inversión de televisiones públicas como ETB.
Esta nueva regulación es de la Ley General de Comunicación Audiovisual del 31 de marzo del 2010 (Ley 7/2010).
La plataforma del Audiovisual en la que participamos junto con los productores de IBAIA, EPE-APV, guionistas y nuevos realizadores, ha enviado al Viceconsejero de Cultura del Gobierno Vasco una carta en la que se le recuerda la urgencia del proceso de adaptación a los nuevos porcentajes ya que de ello depende el cálculo de la inversión en proyectos.
**EAB**




## ENCUENTRO CON JOSU BILBAO EN DONOSTIA
### Director de casting

El próximo 7 de mayo EAB ha organizado un encuentro con Josu con el propósito de acercar la figura del director de casting a las actrices y actores, favorecer la relación y contacto directo por ambas partes, el cara a cara. Tratar de responder a las preguntas o dudas que genera nuestro medio. Ampliar el conocimiento y recopilación de material (curriculums, videobooks) de las actrices y actores que no le conocen o que no han coincidido nunca profesionalmente.
No es un casting, ni tampoco una entrevista. Es un encuentro para conocer a las nuevas incorporaciones de actores y actrices. Los interesados/as llamar al 943314822 o mandar un correo a admon@actoresvascos.com
**EAB**

## REUNIONES EN BILBOESZENA

Tras muchos e-mails, llamadas, compatibilidades e incompatibilidades de horarios, conseguimos reunirnos en el mes de marzo 39 afiliados de Bizkaia. Las reuniones se llevaron acabo en Bilboeszena durante toda una semana, repitiendo así, la dinámica de hace dos años. El objetivo de estas reuniones era valorar el camino andado desde entonces, escuchar las opiniones de los afiliados acerca las actividades que se llevan acabo y plantear nuevas actividades que puedan resultar interesantes. De esta forma descubrimos una vez más que EAB es la gente que lo compone. Se incidió en el hecho de crear pequeñas comisiones de trabajo que llevasen adelante las propuestas que se habían lanzado. Entre ellas encontramos cursos, encuentros, lecturas dramatizadas o incluir a EAB en redes sociales como Facebook. Pero tenemos que entender que estas propuestas solo funcionarán si existe una intención real y gente interesada en ellas.
Por otra parte, se han tomado decisiones como la renovación de la junta y la producción del Premio Abrazo 2011. La junta se renovará con Miriam Martin, Jorge Santos y Nadia Bolaños quienes a su vez formarán parte de una comisión en Bizkaia junto a Gabriel Reig, Itxaso Quintana y Maria Goiricelaya. El Premio Abrazo 2011 lo producirá Erre-Maskarada Eventos.
Desde EAB os agradecemos vuestra presencia y os animamos formar parte activa de la afiliación. Siempre es un placer conocernos o volver a vernos, darnos cuenta que somos muchos pero no tantos y pensar que confluimos en pequeñas cosas. Ahora tendremos que seguir trabajando para que estas propuestas encuentren una buena salida.
Esperemos que esto no sea una salida de caballo andaluz y llegada de burro manchego.
**Ane Pikaza**

# LONDRESEKO ISTORIOAK

Kaixo berriz ere, oraingo honetan Donostiatik idazten dizuet. Egun batzuk atseden hartzera etorri naiz etxera, Londresera berriz ere bueltatu aurretik azkeneko bi hilabeteak eskolan egitera. Eskolaren izena gogoratzen ez baduzue, London International School of Performing Arts.

Alde batetik oso gustura jarraitzen dut eskolarekin, esperientzia izugarria izaten ari da bai aktore bezala eta bizitza pertsonalean ere. Beste alde batetik ere aldapa gora egiten ari zait azkeneko bigarren urte hau, eskola honetako aktoreak gure energi eta denbora guztia eskolara bideratuta daukagulako. Eguneko 24 orduak eskola izaten dugu buruan, egia da ere bertan bizitzen ari garen prozesua eta emaitzak edozein esfortzu justifikatzen duela.

Bigarren urte hau, interpretaziora bideratuagoa dago, horrela genero desberdinekin lanean gaude, tragedia eta korua, grotesko, maskarak, kabareta, clowna, melodrama... Gorputzaren eta mugimenduaren ezagupenarekin jarraitzen dugu ere, Alexander metodoarekin, akrobazia dramatikoarekin eta teknika korporalarekin.

Lehendabiziko artikuluan esaten nuen bezala, eskolaren lan metodoaren gauzarik saiena niretzat *Devising* processa da, erresuma batuan oso ohizkoa den lanezko metodoa da. Azaldu egingo dizuet zuetako norbaitek ezagutzen ez badu. Irakasleek astero gai berri bat azaltzen digute gu probokatu nahian, adibide bat jartzearren greziar tragedia. Honaino ez dugu izaten inongo arazorik, baina pentsa dezagun ikasle bakoitzak proposamen desberdina ekartzen duela, Medea, Perséfone, Galatea edo dena delakoa, mito horietatik bakarra aukeratu behar dugu eta gure ikaskideak sinestarazi behar ditugu gure proposamena onena dela gure taldean lan egiteko, hor gertatzen dira lehendabiziko borrokak eta baita Ego-en borrokak ere. Honi beste arazo bat gehitu behar diogu, hizkuntza, beti ere Ingelesa ez bada gure ama hizkuntza. Beti, Britanikok, Australiarrak edota Amerikarrak erraztasun handiagoak dituzte bere proposamenak argudiatzeko. Lehendabiziko puntua argitua dagoenean, lan gogorrean barneratzen gara, hots, kreazioan eta muntaketan. Ondo lan egiteko, guztiak itsasontzi berean arraun egin behar dugu eta norabide berean, baina nola gertatu daiteke hori bakoitzak lema desberdin bat badugu? Hori izaten da nire ustez zaiena. Hainbeste lan ordu pasatzen dituzu zure ikaskideekin, azkenean taldea *Gran Hermano* batean bihurtzen dela, gure arteko erlazioa, familiarrean bihurtzen da eta prozesuan zure ikaskideekin hiletatik tiraka egon zaitezke eta prozesua bukatzean amodioa egiten. Ikaragarria da. Konturatu naiz ere, emaitza oso garrantzitsua dela baina prozesua edo bizipena askoz ere garrantzitsuagoa dela ikasteko orduan, zure ikaskideak errespetatzea ikasten duzu, pazientzia handia izatea eta artistikoki ere asko ikasten duzu zure ikaskideez.

Nik pertsonalki nahiago dut eginkizun desberdinak taldean banatzea eta bakoitzak erantzunkizun desberdina izatea, horrela zuzendaria dena, zuzentzea, aktorea dena interpretatzea, soinu teknikaria dena soinuaz arduratzea... nire iritzi xumearekin uste dut horrela lan egitea errazagoa eta azkarragoa dela baina argi dago ere, agian horrela prozesua zein emaitza ez dituzula hain zureak sentitzen. Hala ere, esperientzia ikaragarria, bai jauna.

Antzerki esparruan, erlaxazioaz ere hitz egin nahi dizuet. Gure eskolan beroketa mota bat egiten dugu gure ikaskideekin lanean hasi aurretik eta niri bereziki asko gustatzen zait. Sinpleki ikaskideekin kontaktu fisikoa izatea da. Azalduko dut, klase bakoitza asterakoan, irakasleak lan egingo dugun gaia azaltzen digu. Ondoan dugun ikaskidea, gorputz-jarrera erlaxatu bat hartzera gonbidatzen dugu eta bere gorputz osoari masajea ematen diogu bost bat minutuz, horrela zuk zure ikaskidearen masajea bukatzen duzunean zure txanda da masajea jasotzeko. Tontakeri bat dirudien harren, niretzat amodioaren eta humanismoaren erakustaldi bat da, izugarria da zure ikaskidearen masaje sinple batek zuri mentalki eta fisikoki zenbat erlaxatu diezazukeen eta konfiantza handia hartu bai zuregan eta baita ere zure ikaskidean eta klaseko ikaskideetan. Ekintza honen ondorioz zure barnea klase guztiarekin konexioan sartzen da eta ondorioz zure presentzia handiagotu egiten da. Nire sentsazio pertsonala da, nire "Nia", bigarren plano batera pasako bazen bezala eta zure barnea klaseko magia kolektibora bideratuko balitz bezala.

Beste gauza baten kontzientzia ere hartu dut eskolan, aktoreak eszenatokian dugun presentziaz. Pentsatzen dut gauza handia dela, eszenatokian zaudenaren kontzientzia edukitzea, arnasa hartu dezakezula ito gabe, orainan egotea eta zure gorputza sentitzea hemen eta orain. Pentsatzen dut horren kontzientzia duzunean eta aplikatzen duzunean, hor sortzen dela artea eta artista. Lehen esan dudan bezala arnastu, lehen noizbehinka eszenatokira ateratakoan, ahaztu egiten zitzaidan gauza zen publikoarekin lehen kontaktua nuenean, orain usten dut arnasten ez baduzu ez zaudela eszenatokian, hots, ez duzula presentzia. Niretzat gauza arruntak ziren hauek eta egiten nituela pentsatzen nuen, eskolan ariketa desberdinekin inkontzientzia handia nuela erakutsi zidaten arte, arnastea hazten zitzaidan larri nengoenean eta lokomotor bat baino azkarrago nioan, korrikalari bat izango banintz bezala helmugara lehen bailen iritsi nahian.

Beno, irakurle maitagarriak, hauek dira ikasten ari naizen beste esperientzi batzuk erresuma batuan. Ekainean eskola bukatuko dut eta Jaingoinkoak, natura edota unibertsoaren sortzailea denak esango du zein izango den nire hurrengo esperientzia. Baina esperientzia guztiak ikaragarriak dira eta kanpora ateratzeak asko laguntzen du gauza berriak ikasteko. Agur bero bat guztiontzat eta aukera baduzue, bidaiatu.

**Arkaitz Gartziandia**



Arkaitz Gartziandia


Jessica A. Kaahua

# 2011ko Antzerkia Nazioarteko Eguneko

## martxoak 27

Gaurko topaketa antzerkiak komunitateak mugiarazteko eta ezadostasunak gainditzeko daukan ahalmen handiaren isla leiala da.

Inoiz pentsatu al duzue antzerkia bakerako eta adiskidetzerako tresna indartsua izan daitekeela? Nazioek gatazka bortitzak dituzten tokietan bake misioak egiteko izugarrizko dirutza xahutzen duten bitartean, antzerkiak gatazkak eraldatzeko eta kudeatzeko banan banako alternatiba gisa daukan funtzioari arreta eskasa jartzen zaio. Nola lortuko dute Ama Lurreko herritarrek bake unibertsala, horretarako erabiltzen diren tresnak kanpoko botereetatik eta itxuraz zapaltzaileetatik badatoz?

Antzerkia beldurrek eta susmoek larritutako giza ariman sartzen da sotilki. Hala, gizakiek beren buruaz daukaten irudia aldatzen du eta alternatiba mundu bat irekitzen die, bai gizabanakoei, bai eta, ondorioz, komunitateari ere. Eguneroko errealitateei zentzua eman diezaieke eta etorkizun zalantzagarriaz ohartaraz gaitzake. Politikan parte har dezake, modu sinplean, zuzenean. Inklusiboa denez, aurreiritzi okerrak gainditzeko aukera ematen duten esperientziak aurkez ditzake.

Gainera, antzerkia taldeak partekatzen dituen ideiak, urratzen direnean defendatu nahi izaten ditugun ideiak, babesteko eta zabaltzeko bitarteko nabaria da.

Bake etorkizunari aurrea hartuz, gizaki bakoitzak bakeranzko bidean egiten dituen ekarpenak ulertu, errespetatu eta aintzat hartuko dituzten bitarteko baketsuak erabiltzen hasi behar ditugu. Antzerkia bakearen eta adiskidetzearen aldeko mezuak zabaltzeko aukera ematen digun lengoaia unibertsala da.

Antzerkiak, partaideak aktiboki esku hartzera bultzatuta, arima askok aurreiritziak bazter ditzaten lor dezake, eta horrela, berriro ere jaiotzeko eta berriro ere deskubritutako jakintzetan eta errealitateetan oinarritutako hautuak egiteko aukera ematen die gizabanakoei. Antzerkiak beste arte forma batzuen artean aurrera egin dezan, eguneroko bizitzan sartzeko aurrerapauso indartsu bat eman behar dugu, gatazka eta bake gai premiazkoak landuta.

Gizarte eraldaketa eta komunitateen erreforma bilatzen duenez, antzerkia gerrak suntsitutako hainbat tokitan eta txiroak diren edota gaitz kronikoak dituzten hainbat herritan existitzen da. Antzerkiaren bidez ikusleen kontzientzia piztea eta gerra osteko traumak dituzten biktimei laguntzera bultzatzea lortu duten gero eta istorio arrakastatsu gehiago daude. Dagoeneko bakearen aldeko hainbat kultur plataforma daude, besteak beste, Antzerkiaren Nazioarteko Erakundea, «jendearen artean bakea eta adiskidetasuna sendotzea» helburu daukana.

Beraz, gure garaian, antzerkiaren boterea ezagututa, isilik jarraitzea eta armak daramatzatenei eta bonbak jaurtitzen dituztenei gure munduko bakearen zaindari izaten uztea fartsa da. Alienazio tresnak nola izango dira, aldi berean, bakerako eta adiskidetzerako?

# aren
# eko
# mezua

Antzerkiaren Nazioarteko Egun honetan, ikuspegi horrekin pentsatzera eta antzerkia elkarrizketarako, gizarte eraldaketarako eta erreformarako tresna unibertsal bihurtzera gonbidatu nahi zaituztet. Nazio Batuen Erakundea, armak erabilita, mundu osoko bake misioetan izugarrizko dirutza xahutzen ari den une honetan, antzerkia bat-bateko alternatiba da, gizatiarra, merkeagoa eta askoz ere boteretsuagoa.
Baliteke bakea ekartzeko modu bakarra ez izatea, baina antzerkia bake misioetan tresna eraginkor gisa erabili beharko litzateke, segur aski.
**Jessica A. Kaahua**
Euskerazko itzulpena: Maramara

Jessica Kaahuak garapenerako partaidetzazko komunikazioaren metodologia ikertzen eta diseinatzen ibilbide luze eta askotarikoa du egina. Gaur egun, Makerereko Unibertsitateko Antzerki eta Literatura departamenduetan klaseak ematen ditu, eta bera ere bertan ikasia da.
Beningo Unibertsitatean (Nigeria) lizentziatu zen, eta han egin zuen lan esatari gisa, Nigeriako Irratiko Kanpo Zerbitzuan.
Kaahua doktore andreak Antzerkiaren Historia, Teoria eta Kritika ikasketak egin zituen, Marylandeko Unibertsitatean, eta doktoregoa 2001ean lortu zuen. Horrez gain, antzerkia eta komunikabideak gatazken egituran indar eraikitzaileak izateko eta osasuna hobetzeko tresna gisa erabiltzera bideratutako ekimen nazional multzo baten bultzatzailea izan da. Bestalde, teoriekin esperimentatzen jarraitu du, antzerki praktikari buruzko diskurtsoa zabaltzeko. Horren adibide on bat «Esanahi pertsonala duen antzerkia» eta «Komunikazio gatazken antzerkia»rekin egin duen esperimentazioa da. Gaur egun, antzerkia praktika terapeutikoetan txertatzearen alde egiten ari da lan.

# ¿Y yo qué hago aquí?

El Teatro como servicio a la humanidad. El Teatro como un arma de paz frente a la política bélica mundial. Ese era el punto a destacar en el Manifiesto que se leía el pasado 27 de marzo para conmemorar el Día Mundial del Teatro. De cómo el teatro es capaz de movilizar comunidades, de reconciliar, de pacificar, de resolver conflictos.
Curioso mensaje, cuando a mí alrededor, en un conocido local de Bilbao, apenas 30 personas se juntaban para escucharlo. Miradas tímidas y saludos cómplices entre los pocos teatreros que allí se contaban, esos románticos de la profesión que habían decidido salir de sus casas en un domingo lluvioso para celebrar, ese día que aviva la nostalgia y que, a muchos de nosotros, nos hace preguntarnos año tras año: ¿qué hago otra vez aquí?
Días atrás, algunos de esos locos se juntaban para preparar un Match de improvisación organizado por EAB que, por culpa de la lluvia, tuvo que ser suspendido. Otra manera de celebrarlo, de salir a la calle, de divertirse… ¿qué es el teatro sino eso: salir a la calle y jugar?
Este año el mensaje hablaba de los que ya no juegan. De la necesidad de dar un paso decidido hacia adelante para incorporar el teatro en la vida diaria, abordando asuntos críticos de conflicto y paz. Utilizando el teatro como una herramienta universal de diálogo, transformación y reforma social. Maravillosa reflexión la de Jessica A. Kaahwa. Utópica, pero igualmente magnífica. La dificultad reside en convertir en arma de paz, un arte que es guerrero por naturaleza y que a día de hoy sigue luchando por hacerse un hueco en nuestra sociedad. Si el pueblo no toma las armas de poco o nada sirve que éstas sean espléndidas.
Me vienen a la cabeza esas palabras tan conocidas del maestro García Lorca: *"Un pueblo que no ayuda y no fomenta su teatro, si no está muerto, está moribundo; como el teatro que no recoge el latido social, el latido histórico, el drama de sus gentes y el color genuino de su paisaje y de su espíritu, con risa o con lágrimas, no tiene derecho a llamarse teatro, sino sala de juego o sitio para hacer esa cosa horrible que se llama matar el tiempo."*
El teatro siempre ha estado moribundo…Es moribundo por naturaleza. De ahí que en tiempos de guerra siempre encuentre su sitio. En tiempos de guerra y en tiempos de paz… De un modo u otro, siempre ha recogido las preocupaciones sociales, las miserias; también las alegrías.
Sentada en una silla de un conocido local de Bilbao, continuaba pensando: "Ya, el Teatro como instrumento de paz… y yo ¿qué hago aquí?" No lo tengo claro. A veces me cuesta ver qué hago, qué hacemos… aquí. Tan sólo dos días antes escuchábamos a la ministra de cultura confesar en un acto de celebración de este mismo día que ella "*también*" hace teatro, "*en el Parlamento y el Senado, depende del día*". Bien Sinde…, bien.
**María Goirizelaia**



# DONOSTIAN, ALBERTOREKIN

Alberto Gorritiberearekin ikastaroa bukatzear gaudela, arrazoi asko bururatzen zaizkit hau bezalako kurtso bat egiteko: entrenamendu profesionala, zuzendaria bera ezagutzea, arrotzagoa zaigun hizkuntzetan lan egitea, medio desberdin batean gure burua probatzea, lanbidean topo egin ez dugun lankideekin eszenak interpretatzea… Nire kasuan, hala ere, askoz helburu sinpleagoa nuen buruan: ondo pasatzea. Ez dut ukatuko hasieran aipatutako horiek ez nituenik, baina funtsean, ondo pasatzeko eman nuen izena kurtsoan, eta erabat bete dut helburua: ederki ibili gare! Barre egin, jende berria ezagutu, esperimentatu… azken finean, oso ondo pasatu dudala. Horregatik, ez dut ulertzen EABn 450 afiliatutik gora egonda, nola ez den jende gehiago apuntatzen hau bezalako ikastaroetara. Ez al zaigu bai hainbeste gustatzen aukeratu dugun lanbidea? Normalean gutun baten bitartez ematen digute ikastaroen berri eta, jakin dudanagatik, gutunaren bidez izena ematen dutenen kopurua, gutxitan iristen da kurtsorako estimatzen den kupora. EABko bulegotik bertatik korreo elektronikora bidali behar izaten dute berriz publizitatea, libre dauden plazak betetzeko. Ez al da kezkagarria horrelako kurtsoak hain prezio merkean izan, eta jendeak interesik ez azaltzea? Ikuspuntu egoistatik, niretzat hobe! Hurrengo kurtsoan, Lurdes Bañuelosenean, ere eman dut izena. Aurretik parte hartu izan arren, tokatzeko hainbeste aukera badaude, aprobetxatu egin behar…

Kurtso berezia izan da Albertorena. Interpretazioaz baino, lengoaia zinematografikoaz hitz egin digu; eta proiektu zinematografiko batean lan talde osoak duen garrantziari buruz. Oso modu teknikoan zuzendu gaitu gehienetan eta horrek kolokan jartzen zuen pertsonaiarekiko etxetik genekarren aurreiritzia. Ez da erosoa argibide tekniko batzuetan bakarrik oinarrituta lan egitea. Hala ere, ondo etorri zaigula iruditzen zait: aktoreok daukagun egoa (nirea barne) baretzeko, beharrezkoa den inseguritate puntuarekin lan egiteko eta hain funtsezkoak ez garela jabetzeko (gainontzeko ekipoa haina behintzat).

Horregatik, eskerrik asko berriz ere Alberto zinemarekiko daukazun ikuspuntu propioa erakusteagatik. Esker mila baita ere, Eñaut, Maria, Naiara, Jon, Aitzi, Anke, Amancay, Maite eta Maite hain ondo pasaraztegatik. Pello zure pazientziagatik. Eta EABn lanean zaudetenok, kurtso hauek antolatzeko hartzen duzuen konpromisoagatik. Muxu bana!

**Kepa Errasti**



# ENTRENAMIENTO ACTORAL, EXPECTATIVAS CUBIERTAS

Viernes 8:30.
Desayuno con Alejandra (mi hija) entre risas y juegos (vaya teatrera).
9:00 Alejandra me despide con su manita desde la puerta del cole.
9:15 El aire frío me da en la cara por encima del parabrisas de la moto. Conduzco de forma mecánica, ligera, casi inconsciente. Mi mente está en “otras”. En algún momento un personaje se ha subido y repasando escena juntos, nos dirigimos a Kinema.
9:30 Kinema. 40m2, 10 actores, 3 técnicos y un director: Pablo Malo, encargado de guiar el trabajo.
14:30 Fin de la clase y… carajo, no puede ser, algo ha ocurrido con el tiempo. Voló. Maldita medida. Si el tiempo es la percepción del paso de la vida, me niego a contabilizarlo a través de la ignorancia de un reloj. Regresemos a ese periodo difuso entre las 9:30 y las 14:30.

Dos compañeros en escena dando vida a unos personajes en concreta situación. El resto observa. Entre ellos, Pablo está sentado… no… recostado… no …bueno no para quieto ni un momento (tipo nervioso este eh!). Se levanta y corrige, da notas, regresa y comenta, vuelve, mas notas. Eso sí, no perdona los saltos de Racor (para mí que en la próxima vida este será script Si o SI). Desde el primer momento tiene muy claro que quiere y como se comporta el personaje, lo que te da una seguridad y confianza determinante a la hora de crearlo a esto hay que añadir que este grupo ha venido siempre con los deberes hechos lo que ha generado un ritmo de trabajo intenso. Poco más que decir.

Estos cursos nacieron con el fin de proporcionar entrenamiento actoral y creo que las expectativas se han cubierto. Un grupo de compañeros comprometidos. Un director dispuesto al trabajo. ¿Qué mas pedir? Si, una más. Que pare el tiempo.

**Mikel Martin**

## Próximos cursos

En Bilbo con Patxo Telleria, los viernes de mayo y junio. En Donostia con Carlos Zabala, los viernes de junio y julio. Recibiréis información más detallada.



Ainhoa Resano

## Donostiako antzerki saria

Como actividad estrella del día mundial del Teatro, Donosti lo celebró con la entrega del premio "Antzerki saria" que fue entregado al espectáculo *Errautsak*, una co-producción transfornteriza realizada por Artedrama, Dejabu y Le petit Theatre du pain. Tras la ceremonia magníficamente guiada por Patxo Telleria y Mikel Martinez, que no nos dejan de sorprender con su humor inteligente, pudimos disfrutar del espectáculo premiado. Nos regalaron una representación irreverente, valiente y con una sobredosis de energía teatral que no es habitual encontrar sobre los escenarios.
Zorionak talde osoari!

## Etxepare institutuak euskara eta euskal kultura nazioartean sustatzeko diru laguntzetara 1,3 miloi euro bideratuko ditu

Ekintza honekin euskal sortzaileen ekimen eta beharrei erantzuna emango die Etxepare. Euskal Institutuak, hauen nazioarteratzea ahalbidetuz, eta hauen jarduerak bultzatuz. 2011 urtean Etxeparek 1,3 milioi eurotik gora bideratuko ditu diru-laguntzetara, bere aurrekontuaren %48. Horietatik 751.359 euskal kultur ekoizpena atzerrian sustatzeko izango dira eta 600.000 munduko hainbat unibertsitatetan irakurle programak, katedrak eta bekak sortu eta mantentzera bideratuko dira.
Eskaerak egiteko epea, apirilak 23an bukatzen da, eta jardueraren exekuzio epea 2011eko urtarrilaren 1etik 2011eko abenduraren 31ra joango da. 45.495 euroko dotazio ekonomikoa izango du diru-laguntza honek, eta Eskaera batek jaso dezakeen gehienezko dirulaguntza 18.000 eurokoa izango da. www.etxepareinstitutua.net

## ENT convoca el XX Concurso de Textos Teatrales para público infantil

La Escuela Navarra de Teatro (ENT), junto al Ayuntamiento de Iruñea, ha puesto en marcha el XX Concurso de Textos Teatrales dirigidos a público infantil. En este certamen pueden presentarse obras tanto en castellano como en euskara. La fecha límite para entregar los trabajos es el 16 de mayo. El concurso establece dos premios de 2.200 euros para cada una de las modalidades en euskara y castellano. Cada participante puede presentar un máximo de tres obras pero en ningún caso será admitida la misma obra escrita en las dos lenguas y presentada a las dos categorías. Dirección de Entrega: Escuela Navarra de Teatro, San Agustín, 5 31001 Pamplona-Navarra Tel: 948 229 239 Fax: 948 210 360 | info@laescueladeteatro.com



## Iruña

La Escuela Navarra de Teatro celebró el día mundial del Teatro con la puesta en escena de *Sagar biltzailea*, texto ganador, en la modalidad de euskera, del XIX Concurso de textos teatrales dirigidos a público infantil, que organizan cada año el Área de Cultura del Ayuntamiento de Pamplona y la Escuela de Teatro. La obra está escrita por Beatriz Miró y Monika Torre y dirigida por Mikel Mikeo.

## Servicios en los que puedes obtener descuento con el carné de EAB

### GIPUZKOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Arropa denda | Berriz | -10% | Hondarribia, 30. Donostia | |
| Diseño web | Gabekin | -15% | info@gabekin.com | 943 192411 |
| Esteticien | Donna | -10% | Arrasate, 33. Donostia | 943 422077 |
| Fotógrafo | Kote Cabezudo | -10% | kote@fotokoma | 609039069 |
| Fotógrafo | Sylvia Scholtens | -10% | | 605744593 |
| Fotógrafo | Laura 10M Foto | -10% | Estación 1. Urnieta | 656747018 |
| Maquillaje y peluquería | Ainhoa Eskisabel | -15% | ainhoaexki@hotmail.com | 630070782 |
| Logopeda y foniatra | Carmen Quiñones | -10% | Avda.Tolosa, 95. Donostia | 943 313974 |
| Pensión Basic Confort | Isabel | -15% | Calle Puerto, Donostia | 608687658 |
| Reportaje vídeo y copia | Zumeta | -10% | videozumeta@euskalnet.net | 943 469683 |
| Tai Chi Chuan eskola | Juan | -10% | info@taichichuaneskola.com | 943 423757 |
| Videobooks | Desiderata | -10% | desiderata@ya.com | 666427897 |
| Videobooks | Zazpiterdi | 150€ | zazpiterdi@gmail.com | 657727859 |

### BIZKAIA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Aldizkaria | Artez | 40€ | artez@artezblai.com | 94 4795287 |
| Danza | La boutique de la danza | -10% | Belostikale, 12. Bilbao | 94 4167954 |
| Disfraces | El disfraz | -10% | La Torre, 9 y Perro, 8. Bilbao | 94 4164771 |
| Escenografía y atrezzo | Urdai-art | -20% | artemartillazos@yahoo.es | 94 6258528 |
| Escuela danza | Inés Uriarte | -20% | Nervión, 3-40. Bilbao | 94 4230299 |
| Estudio grabación | Belan | -20% | Aldapa, 1-bajo B. Barakaldo | 94 4372462 |
| Fotógrafo | Carlos Terreros | -40% | www.carlosterreros.com | 610382821 |
| Fotógrafo | J. Jesús Sanz | -40% | WWW.euskalnet.net/juanje/ | 617596588 |
| Fotógrafo | Maite Oñederra | -40% | Urazurrutia 19, escalera muelle. Bilbao | 94 4166736 |
| Hotel | Hotel Arriaga | -45% | Rivera 3 | 94 4790001 |
| Liburudenda | Yorick | -5/25% | San Francisco. Bilbao | 94 4795287 |
| Maquillaje | Alicia Suárez | -10/30% | Amistad, 6. Bilbao | 94 4232208 |
| Osteopatía y masaje | Gorka Madariaga | -60% | Erzilla, 42-20 Izda. Bilbao | 676088303 |
| Peluquería | Glamuforia | -10% | La Rivera 2. Bilbao | 94 4790992 |
| Reflexion podal y osteopatía | Iam Agorria | -20% | Elorrio | 94 6820604 |
| Taller de la danza | Muelle 3 | -20% | Muelle de la Merced 3-40 Izda. Bilbao | 94 4163383 |
| Videobooks | Makiaudiovisual | 150€ | makiaudiovisual@telefonica.net | 696971793 |
| Vídeobooks | Bilbkasting | -10% | info@bilbocasting.com | 94 4329300 |

### ARABA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Estética facial y corporal | Geli D´Mora | -10% | Eduardo Dato, 31-4aB. Gasteiz | 945 142335 |
| Hotel | Cadena Hoteles USA | | Información EAB Bilbao | 94 4333786 |
| Librería | Casa del libro Axular | -5% | Arka, 11. Gasteiz | 945 158175 |
| Perfumería | Etxeberria | -10% | Dato, 13. Gasteiz | 945 231521 |
| Videobooks | Argiarte | 150€ | yolandalzheredia@gmail.com | 686384426 |

### Teatro

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Barakaldo | 50% | Ermua | 50% | T. Munici. de Donostia | 10% |
| Durango | 25% | Gernika | 30% | T. Munici. de Gasteiz | 20% |
| Eibar | 50% | La Fundición | 20% | Zornotza/Amorebieta | 25% |
| Elorrio | 50% | T. Arriaga de Bilbao | 50% | Zumaia | 50% |


DIRUZ LAGUNDUTAKO BERRIPAPERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MINISTERIO DE CULTURA
INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

Fundación Baige

KOLABORATZAILEA

bilbo eszena